

# Innobasquek eta Mondragon Unibertsitateak Berrikuntzarako Goi Mailako Hezkuntza bultzatuko dute

2009/07/23

Uztailaren 20an, Innobasqueren Zamudioko egoitzan bildu dira PMP (Certified Project Management Professional) ziurtagiria lortzeko Euskadin eman den lehen prestakuntza-programan izandako 41 parte-hartzaileak; programa hau 2008ko azaroaren eta 2009ko martxoaren artean eman dute Innobasquek eta Mondragon Unibertsitateak.

Programa hau Miguel Sáenz de Víguerak, PMP, (Innobasque) zuzendu du, orain arte "2007 PMI Distinguished Contribution Award" saria jaso duen espainiar bakarra nazioarteko sari honen 20 urte baino gehiagoko historian, eta hori proiektuak zuzentzeko lanbideari egin dion ekarpenagatik.

Gaur arte programan parte hartu duten (CAF, DANOBAT, EUSKALTEL, EJIE, FAGOR, IDOM, IBERMATICA, ITP, LANA, LKS, MONDRAGON UNIBERTSITATEA, MONDRAGON SISTEMAS, SENER, SERIKAT, ZIGOR CORPORATION eta abarretako) 41 profesionaletatik 39k gainditu dute ziurtagiria lortzeko banako azterketa zorrotza, lau ordukoa, Madrilan edo Bartzelonan egin behar izaten dena, eta agiria lortu dute. Beste bi parte-hartzaileek ere urtea bukatu baino lehen lortzea espero da.

Project Management institute (PMI) delakoaren PMP Ziurtagiriak proiektuak zuzentzeko lanbide-gaitasuna egiaztatzen du, eta aitortza global hau izatea mundu guztiko gobernu, erakunde eta enpresek beraientzat proiektuak egiten dituzten arduradunei sarri eskatzen dieten betebeharrak bihurtu da azken urteotan.

Innobasquek eta Mondragon Unibertsitateak emandako prestakuntza-programa bi erakunde hauen arteko itun estrategikoaren emaitza da, orain arte Euskadin proiektu-zuzendaritzako ziurtagiri hau zuten profesionalen urritasuna konpontzeko pentsatua; izan ere, ziurtagiri honekin profesionalik ez izatea eragozpen larria ari zen bihurtzen euskal enpresentzat, nazioarteko proiektuetan parte hartzeko aukerak gutxituz, baita instituzio, erakunde eta enpresa liderrentzat ere.

Bilera honek lehen zati bat izan du profesional kutsukoa, zenbait hitzaldirekin eta proiektu-zuzendaritzari buruzko gaien inguruko solasaldiarekin; eta bigarren zati bat jai kutsukoa, lorturiko arrakasta ospatzeko afariarekin, eta proiektu-zuzendaritzako profesionalen lagunarteko ekitaldiarekin.

Innobasquek eta Mondragon Unibertsitateak berretsi dute PMP Ziurtagiria lortzeko prestakuntza-programa hau gutxienez urtean behin emango dela, eta dagoeneko aurrez izena emandako asko dituztela hurrengo programarako; horietako asko lehenengo edizioan parte hartu duten enpresetakoak dira, interesa agertu baitute ziurtagiri hau lorturiko profesionalen kopurua gehitzeko.

Halaber, Innobasquek eta Mondragon Unibertsitateak jakinarazi dute, ekonomia berrirako enpresa-liderren heziketarako itun estrategikoaren ildotik, datorren urtarrilean hasiko direla Euskadin "Unibertsitate Masterra: Enpresa Berrikuntza eta Proiektu Zuzendaritza" ematen; horren programa dagoeneko egiztatu eta onetsi dute ANECAk eta Unibertsitate Kontseiluak, eta beraz Unibertsitate Master Ofiziala izango da Europako Hezkuntza Eremuan; horrek ziurtatzen du onartua izango dela Goi Mailako Hezkuntzari buruzko Bolognako itunari atxikita dauden 40 herrialde baino gehiagotan.

